

AITA POLIKARPOREN GORATZARRETAN

Iraizotz, 1997-03-22

Jesús Goldaraz

Herriko seme naizenez, plazer handia da niretzat, herriaren ordezkari gisa, gaur Euskaltzaindiak Aita Polikarpori egin nahi dion omenaldian parte hartzea. Haren bizitzaren azalpen ttikia edo, hobeki errateko, haren ezaugarri batzuk aipatu nahi nituzke. Eta ez da erran beharrik irazioztarrek eta Ultzama guziak gogotik bat egin dugula omenaldi honekin.

Herriko Etxe honetatik hagitz hurbil, hor gibelean, jaio zen orain dela ehun urte, urtarrilaren hogeita hamaikan, egunotan lanean ari izan zareten etxean be-rean. Eta gauza bitxia da hori dela herrian izenik ez duen etxe bakarra, segur aski garai batean, Aita Polikarporenetan zehazki, eskola izan zelako. Izan ere, maisuaren etxea zen garai hartan.

Lehendabizi Altsasun, Zangozan, Hondarribian eta Iruñean ikasi zuen; gero, Filologia Erromanikoaren ikasketak Zurichen burutu ondotik, Kaputxino Ordenaren idazkari nagusi izan zen Erroman eta, azkenik, Lekarozen eman zituen bere azken urteak. Erraten ahalko genuke hauek izan zirela bere bizitza eta sormen literario oparoaren mugarri nagusiak.

Niretzat gizon kuttuna izan da Aita Polikarpo. Neronek ezagutu nuen eta harremanak izan udaro, Erromatik etorri eta bere familiarekin egun batzuk pasatzen zituenean. Ordurako bere senideak, batzuk Erripan, bertze batzuk Burlatan eta bertzeak Iruñean bizi baziren ere, gure etxean bere bisitaldiaren zain egoten ginen eta bai bera zintzo etorri ere. Izan ere, gure amaren bular-anaia baitzen. Orduan jabetu nintzen bere apaltasun eta sakontasunez, bere hurbiltasun eta herri sustraiez.

Bai gure amari, bai bere arreba Josefari (hemengo aunitz oroituko zarete herrietako bestetan sukaldari ibiltzen zen kemen eta adore handiko emakume hartaz) bie, bada, entzun izan nien aunitzetan nola joan behar izan zuen ttiki-ttikitatik *artxaiko* herriko etxe batera; horrela deitzen zitzairen gure artean orain dela gutti arte hainbertze mutikoentzat ohiko izan den eginkizun horri, jakina. Eskola eta hezkuntza ez zen gaur bezain beharrezkotzat jotzen eta ez zitzaion gaur eguneko garrantzirik ematen.

Arrazoi honengatik eta, hau ere biei entzun izan nien, gaztelaniaz mintzatzeke zeukan zailtasunagatik bota omen zuten Iruñeko Seminariorik “motza” zela eta deus guttiz jabetzen zela argudiatuz.

Ez zekiten zer ari ziren. Ez zioten antzik eman gaztetxo haren gaitasunari; esku artean izaki eta ez aintzat hartu berehala halako emaitzak ematen hasiko zen landugabeko altxor hura. Orduan, Altsasuko Kaputxinoetara jo behar izan zuen.

Arañotz eta Elordi, Amati eta Alzugain, Arranbilleta eta Sorota, Labaki, Aranttota, Expondape, Esatri, bere etxearen gibelaldean, izan ziren, bertzeak bertze, bere-beretzat hartu eta bizitza osoan gogoan izan zituen Iraizozko leku-izenak.

Bere lan literarioa goraiatu nahi den egun honetan, Iraizoztik begiratuta, ezin aipatu gabe utzi bere sorterriari erakutsi zion maitasuna eta atxikimendua. Inon baino hobeki adierazten du urrutitik idatzi zuen olerki honetan:

ORI'KO TXORIA

Zeruan eder ilargia
izarren aitzindari;
aren ondoan artizarra
goizean da nabari.
Aiek zerutik beira daude
nere sorterriari:
ni berriz basabazter ontan
nigarretan naiz ari.

Zoritxarrean lekutu naiz
jaio nintzen txokotik
zoriona bilatu naiez,
atsegin ondolik;
aunitz erritan ibili ta
leiatu naiz gogotik;
baina biotzak eztu onik,
nion eztu gozorik.

Txoriak ere kantatzen du
baratzeko esian:
“Ori'ko txoria laket da
beti Ori-mendian”;
uda ta negu, gau ta egun
an bizi da lorlan.
Nik ere bizi ta il nai dut
sortu nintzen tokian.

Oi erri maitea, zu zaitut
orai nere gogoan;
zure izen xoragarria
maiz dadukat agoan;
gauetz ere zutaz ari naiz
beti amets gozoan:
Jaunak berriz jarriko al nau
laster zure altzoan!

Ikusten duzueenez, jatoritasuna dario. Herrimina eta Iraizozmina, bada, bi- zipen iraunkorra izan zen gure gizonarengan.

Euskarari, bere ama hizkuntzari ere bere ahalegin eta gorespen hoberenak eskaini zizkion, berak, 1977an, hitz hauek idatzi bazituen ere:

“Umilki aitortu behar dut agerian dagoena: ez dut nere bizitza luzean burrunba handia ateratzeko haineko lanik bururatu euskeraren alde. Ez nezaiokeen euskerari nahiko nukeen bezainbat denbora eman, ez nuen euskera bezain sakonki eta hetatuki ikusteko eta ikertzeko egokierarik. Halaz ere, badirudit eus-

keraren alde zerbaitño egin dudala, era nuen guzietan gogotik mintzatuz, idatziz, predikatuz; hots! besterik ez bada, euskerari onerizteko eta eusteko etsenplu ona emanez.”

Ez da nire egitekoa une honetan, hori Patxi Ondarrak eginen baitu, bere lan literario zabalaren aipamena egitea, “Urtsuia” eta “Irisarri” izengoitiak erabiliz, liburu, itzulpen eta aldizkarietan idatzi zuena. Bakar-bakarrik olerkari alderdia aipatu nahi nuke eta batez ere hamalaudunak sortu zituenekoa —berak 140ren bat egin zituela dio—. Koldo Mitxelenak berak goraiatzan du Aita Polikarpoz ari denean; honela dio:

“... a quien se deben unas finas traducciones de poetas románticos alemanes y últimamente, bajo el seudónimo de «Irisarri», una serie de sonetos perfectos, acaso los mejores que se han escrito en lengua vasca” (*Historia de la Literatura Vasca*, p. 153).

Eta eskerrak emanez bukatu nahi dut.

Eskerrak gaur hona etorri zareten guziei, zuen presentziak haunditu egiten baitu nolabait gaur omentzen ari garenen irudia.

Eskerrak ultzamarrei eta irazioztarrei bereziki, iraganean bezala, eta Aita Polikarpo da horren adierazpen eta eredu hoberena, etorkizunean ere ahalkizun izanen delakoz gure artetik euskara suspertuko duen bizigarri berria sortzea.

Horretarako euskaldun aski bagara Ultzaman bertako hizkerari eusteko, batez ere, elkarren artean, Aita Polikarpok zioen bezala, “era dugun guzietan gogotik mintzatuz” ahalkerik gabe.

Ildo beretik, gure inguruan sortu eta sortuko diren egitasmoak aintzina eramanez, errate baterako, *pulunpe* aldizkaria bultzatuz, irрати berri baten aurreproiektua bideratuz, Ultzamako haur eta gaztetxoei hemengo euskara ere irakatsiz, denon artean solastuz...

Eskerrak Euskaltzaindiko kideei, ohorea izan baita guretzat zuek hona etortzea eta egun hauetan gure artean lan egitea. Eta Aita Polikarporen altzoak onartu zaituztela eta, zuen etxean bezala egon bazarete, atsegin hartuko dugu. Harro gaude Euskaltzaindiko liburuetan Iraizotz eta Ultzama, geroan, euskararen aldeko lanen topagune eta lekugune izan zirela agertuko baita.

Eskerrak bereziki Iraizozko Aita Polikarpori edota, nahi baduzue, berak horrela sinatzen baitzuen, Aita Polikarpo Iraizozkoari. Bai gaur, bai etorkizunean badugu nori begiratu, norengandik ikasi, nori jarraitu, bera baitugu euskararen pizkunderako akuilu. Eta gaur eskerrak haren etxeokoa zaretenei zabaldu nahi dizkizuegu. Zuen bitartez berari gure oroimen eta goratzarrea.

Polikarpok, grekeraz, fruitu ugari eta oparoa ematen duena, erran nahi omen du. Denok, bada, Polikarpo izan gaitezen euskararen alorrean fruitu zabalak emanez.

1897an Iraizotzen jaioa eta 1980an Lekarozen hila eta ehortzia. 83 urteko ibilaldi bizi eta mamitsua.

Belateko gainak, mandazainen pausaleku garai batean, kontrabandisten pasaleku geroago, ultzamar eta baztandarren arteko mugarri natural beti, oihu, irrintzi egin dezala hemendik harat, Aita Polikarpori gustatuko litzaiokeen sarkontasunez eta adierazi gure hizkuntzari zion eta diogun maitasuna eta haren jaiotzaren mendeurrenaren oihartzun goxoa.

Bertzerik ez.